

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2015eko MAIATZAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko maiatzaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
*Aritz Usandizaga Larrañaga*


Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga  
...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio:**
  - 2015eko apirilaren 16an egindako ohiko bilkura.
  - 2015eko apirilaren 27an egindako ez-ohiko bilkura.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo poligono 1, 382 lursailean dagoen basoetako bide bat egokitu eta zabaltzeko obra baimena eskaera, S.B.**
- 4. Erroitz Baltzu Mugatuak eginiko 2015erako diru-laguntza eskaera, Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko.**
- 5. Larraulgo Laztari B etxeko jardinean pergola bat jartzeko obra baimena eskaera, K.P.A.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2015 urteko apirilaren 16ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- ▣ 2015 urteko apirilaren 27ko Udalbatzaren ez-ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

11/2015 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 28koa, J.G.jaunak duen ibilgailuari, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergatik salbustea, ebazten duena.

12/2015 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 5koa, 2015eko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO POLIGONO 1, 382 LURSAILEAN DAGOEN BASOETAKO BIDE BAT EGOKITU ETA ZABALTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, S.B.**

Ikusirik S.B. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Poligono 1, 382 lursailean basoetako bide bat dagoela egoera txarrean, beraz bidea egokitu eta zabaltzeko obra baimena eskaera egiten du.


Gaia azterturik, Gotzon Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatza honek gehiengoz, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: S.B. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo poligono 1, 382 lursailean dagoen basoetako bidea egokitze eta zabaltzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### LAUGARREN PUNTUA

#### **ERROITZ BALTZU MUGATUAK EGINIKO 2015erako DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, AIURRI BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA ARGITARATZEKO**

Ikusirik 2015 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela “AIURRI, Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria”-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 1.000 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2015 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiurri Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurrikusi duela.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

#### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- “AIURRI, Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria”-ari 2015 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA.- 2015ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.


### BOSTGARREN PUNTUA

#### **LARRAULGO LAZTARI B ETXEKO JARDINEAN PERGOLA BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, K.P.A.**

Ikusirik K.P.A. andreak eginiko eskaera, hau da, Larraulgo Lazteri B etxeke jardinean pergola bat jartzeko obra baimena eskaera egiten du. Horretarako plano bat eta aurrekontu bat aurkezten du.

Ikusirik, hiztegi ezberdinen arabera, pergola bat zutabeek eusten dieten habe horizontalez osaturiko landare igokarien euskarri gertazen den lorategietako eraikuntza txiki bat dela.

Eranskina eraikuntzako azalezko elementu batez (beira, teila...) estaliko balitz, portxe bat izango litzateke eta konputatuko luke baina mugitzen den toldo, landare edo antzeko txilarrez egongo balitz, pergola bat litzateke eta ez luke konputatuko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, jarri nahi den pergolaren estalkia mugitzen den toldo bat dela, baimena eman daitekeela adierazten da.

Hala ere, auzo-gunearen apaingarri publiko orokorra mantentzeko, gainontzeko bizilagunek etorkizunean pergola bat jartzeko asmoa aurkezten badute, egindakoaren berdina izan beharko da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.P. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Laztari B etxeko jardinean pergola bat jartzeko obra baimena ematea.


BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOMENDI	150,00
TOLOMENDI	122,40
BERRU LANTEGIA	23,64
IMAZ COLOR	12,80
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.464,19
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.651,08
EBA ERKIZIA BRION	504,20
AITZOL	48,72
IZFE	1.874,82
ZELAI	98,41
MRW	40,44
FERRETERIA BARBE	147,45
BERRI LANTEGIA	73,01
KEY-LAN	500,25
LIDOINSA	755,04
IBERDROLA	47,24
IBERDROLA	458,44
GAS NATURAL FENOSA	434,52
GAS NATURAL FENOSA	215,72
MOVISTAR	131,88



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	19,58
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,40

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **8.840,38** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **7.1. GURUTZEAGA BASERRI AURREKALDEA POLANEKIN BERDINDU (35M2) ETA FATXADA NAGUSIAN TOLDO BAT JARTZEKO EMANDAKO OBRA BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA**

Ikusirik 2015 eko apirilaren 16an izandako Udalbatzarrean onestu zela A.M. andreari Gurutzeaga baserri aurrekaldea porlanekin berdindu eta fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena.

Ikusirik, A.M. andreak Udaletxe honetan azaldu duela Gurutzeaga baserri aurrekaldea porlanekin berdintzeko obra ez duela egin behar.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: 2015 eko apirilaren 16an izandako Udalbatzarrean hartutako erabakia bertan behera uztea, hau da, Gurutzeaga baserri aurrekaldea porlanekin berdindu eta fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena bertan behera uztea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri A.M. andreari ematea.

#### **7.2. GURUTZEAGA BASERRIKO FATXADA NAGUSIAN TOLDO BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.M.**

Ikusirik A.M. andreak eginiko eskaera, non Gurutzeaga baserriko fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.M. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Gurutzeaga baserriko fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena ematen da.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 19.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA